

## Seigarrena. Izena: Ordutegiaren kontrola

- a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.b) artikulua: Interesduna alderdi den kontratu bat exekutatzeko edo, interesdunak eskatuta, kontratuaurreko neurriak aplikatzeko behar den tratamendua. DBEOren 6.1.c) artikulua: Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzeko beharrezkoa den tratamendua.  
Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua.
- b) Tratamenduaren xedeak: Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen ordutegiaren kontrola.
- c) Ukitutako pertsonak eta kolektiboak: Nafarroako Parlamentuko langileak (funtzionarioak eta lan-kontratupeko langileak) eta garbiketa-zerbitzuak emateko kontratatutako enpresen zerbitzuko langileak.
- d) Datu-kategoriak:
  - Izen-abizenak
  - Jardueraren aldia (altaren eta bajaren data)
  - Itxura
  - Kokapena (unitatea eta zerbitzua)
  - Txarteleko kodea
- e) Hartzaile-kategoriak: garbiketa-zerbitzuak emateko kontratatutako enpresak, Nafarroako Parlamentuaren egoitzan lan egiten duten haien langileei dagokienez.
- f) Nazioarteko transferentzia: ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoaren arabera. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna, haien tratamenduaren murriztapena eta tratamendu horri aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: [dpd@parlamentodenavarra.es](mailto:dpd@parlamentodenavarra.es).